

Negu betean gaudelarik, ez genuke aukera hau pasatzen utzi nahiko landare polit hau alpatu gabe. Irakurleak gogoratuko du apika iazko otsailean genero bereko liliua (*Narcissus bulbocodium citrinus*) aztertu genuela eta oraingorako genero bereko beste neguko lore lirain batez ihardun nahi dugu, anbulu gaiztoa izenekoaz, hain zuzen ere.

Adituek diotenez, Euskal Herrian bi subespezie aurki daitezke. *N. pseudonarcissus "pallidiflorus"* eta *N. pseudonarcissus "nobilis"*. Orokorean "pallidiflorus" subespezieak bestea baino korra zurbilagoa du eta hedatuagoa dago, batez ere altitude baxuagotan.

Anbulu gaiztoak landare txiki ertaineko eitea azaltzen du; bere hostoak hestu eta luzeak orlegi-urdinskak izaten dira eta lore bakarra gara luze batetik kordoba batean kokatzen da dilindari, horizontalki edo zer-txobait zintzilikatua. Lorearen eitea oso deigarria da eta bi zati nabarmenzen zaiz-

kio: korra, tronpeta baten antzera eta te-paloak. Altitudearen arabera, landarea ne-guan edota udaberri hasieran loratzen da, Euskal Herriko belarki, basogune, erreka bazterra eta zoikaztegi inguruetan. Fruitua berriz, 3 kuskus dituen kubatila bat da.

Oso aldakorra izanik, espezie hori erraboliadunen artean parke eta lorategietan lan-datuenetarikoa dela esan behar dugu, Europan batez ere. Horregatik, oso erailia izan da eta eite eta barietate ugari sortu dira. Bestalde, adituek (horrela adierazten du Flora Europearral), 7 subespezie adzik-tzen dizkiote, lehenago aipaturikoak gure artean bakarrik aurkitzen direlarik.

Arestian aztertu dugun subespezie pallidi-

florus hori penintsulako ipar aldean dago

bereziki, Euskal Herriko Ipar aldetik Bre-

tainiaraino puntualki eta eskas agertuz.

Bestalde, landare honek mitologian ere ba-du bere lekutxoa eta ezagunak dira Narciso izeneko artzain lirain baten inguruun kontatu ohi diren amodiozko istorioak.

Istorioak istorio, landare hau maiz erabili

izan da sendabelartza eta horri buruzko erreferentzia asko aurki daiteke. Estate

baterako, Hipocratesek landare horretatik lortzen zuen zkuak edertasuna esku-

ratzeko balio zuela kontatzen da. Bestalde, landareak nacisimo izeneko alkaloide bat du, batez ere bere erraboilaren

diotenez, oso pozointsua da substantzia hori eta eragin "paralizantea" duela esan ohi da. Nolanahi ere, loreak narkotikoztat erabili izan dira, baita estula, asma eta beherakoaren aurka ere. Erraboilak

berriz, epilepsia eta sulkarraren aurka.

Neguko landare ederra dugu dudarik gabe Gales herriak landare adierazletzat hartzen duen liliua hau.



* Naturalista.

J. Terés




Maltzurra bezain polita: ANBULU GAIZTOA

Joxepo Terés*

FITXA TEKNIKOAK

Anbulu gaiztoa/Lilipa arrunta

Familia:	amarilidazeoak
Especiea:	<i>Narcissus pseudonarcissus</i>
Subespeziea:	<i>pallidiflorus</i>
Banaketa:	sakabanatua
Habitata:	belardiak, basoguneak, erreka ertzak, zoikaztegi inguruak, gehienbat isurialde atlantikoan
Sendabelarra:	bai



Banaketa